

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA
EUSKARA ZERBITZUA

19. zkia.

2005eko martia



**EDUR URTE,
OGI URTE**

EDUR URTE, OGI URTE

Horixe dino esatera zaharrak eta horixe berori jarri dogu zenbaki honetako azalean; izan be, oraingo konturatuko zinienez, Erdu Press aldizkaria bera be oparotuta, aberastuta jatorku, itxura barrituagaz eta orrialde gehiagogaz; horretara, aurrerantzean, tarte gehiago eskaini ahal izango deutsegu gure udalerrietan egiten diran ekimenei, euskeraren gaineko gaiei, eta baita bestelako hainbat gairi be.

FRUIZKO BOTIKINA

Fruizko botikina lekuz aldatu dabe, Cristina Latxiondo Huarte-Mendikoa andreak daroan botikin hori lehen udaletxe ondoan egoan, orain apurtxo bat asago dago, lehengo lez Aldai auzoan, baina etxe barriak dagozan aldean.



MEDIKUANERA JOAN BAINO LEHEN ORDUA ESKATU

Joan dan hiletik hasita, Arrieta eta Fruizko herritarrek herriko medikuanera joan ahal izateko ordua eskatu behar dabe. Ordua eskatzeko Mungiako anbulategira deitu behar da, telefonoa 94 600 71 50 da, eta astelehenetik barikura, goizeko 8:00retatik arratsaldeko 20:00retara egoten dira bertan. Urgentzia edo larrialdietarako, ostera, 94 410 00 00 edo 112 telefono zenbakietara deitu behar da.

KONTENEDORE GEHIAGO ARRIETAN eta GAMIZ-FIKAN

Garapen jasagarria terminoak edo berbak zera esan gura dau: herritar guztiei bizi-kalitate hobea ziurtatzea, orain eta gero, ingurumena jagonda. Jasangarritasun politika horren barruan, besteak beste, herrietan kontenedore gehiago ipintzearen aldeko apostua egin da. Kontenedore gehiago jartzeak sortzen doguzan hondakinak gaika banatzea erraztuko eta bultzatuko dau, eta zelan ez, hondakin horreen birziklapena ahalbidetuko dau.



ARGIAK AUZOETAN

Arrietako Udalak udalerriko auzoetan argiak ipintzea erabagi dau. Farolak ondorengo auzoetan jartzen hasita dagoz: Madariaga auzoan, Zamezan, Leixarragan, Urtalden eta Gerekan. Laster Oxinaga eta beste auzo batzuetara be helduko dira. Asmoa apurka-apurka auzune guztietara heltzea da.

HERRI BASOETAKO ERREPLOBAZINOA

Gure inguru jagoteko asmoz, orain dala lau urte inguru, Arrietako Udalak herri basoetako errepoplazino beharrak hasi ebazan Magaltza eta Arkotxa basoetan. Hasitako bide horrerri jarraipena emon eta orain Arkotxa basoaren beste zati bateri, Orroaga, eta Malluki basoei ekiten dabil udala. Sartzen dabizana espeziak pinua gehien bat, eta haretza dira, besteak beste.

INTERNET IKASTAROAK MEÑAKAN

Kontuan harturik gaur egun gizartearen eremu danatan internet gero eta sakonago sustraitzen ari dala, Meñakan, internet erabiltearen aldeko kanpaina bat egin gura dogu. Hori dala eta, gai eta ezagupen maila desbardinetao ikastaroak egiteko aukera eskaintzen deusuegu:

- oinarrizko internet ikastaroak: "Interneten bilatu", "Euskara ziberespazioan", "Interneten segurtasuna"

- internet ikastaro aurreratuak: "KZguneako foro eta FAQak", "Bat-bateko mezuak", "News"

Ikastaroren bat interesgarria eretxiten bajatzu, izena emon Meñakako liburutegian martitzenetik bari-kura arrastitan edota zapatu goizetan. Taldea sortzeko hiru pertsona egon behar dira.

Anima zaitetz eta eutsi internetari!

GAMIZ-FIKA

VII. IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Hainbat urte dira gure udalerritan, gabon inguruan, ipuin lehiaketa antolatzen dala. Egin dogun azkena, joan dan gabonilakoa, esaterako, ipuin lehiaketaren VII. edizinoa izan da eta horrek erakusten dau ekimen hau, gaur egun, nahiko errotuta dagoela gure artean.

Ipuin lehiaketaren ezaugarrietariko bat da bost urtetik aurrerako herritar guzti-guztiek hartu leikeala parte; txikienek (5 eta 6 urtekoek) marrazkitxo baten bidez egiten dabe ipuina, eta gainerakoek eurek asmatu eta sortutako idatziak aurkezten dabez.

Holan ba, honeek urte guztiotan ipuin asko eta asko idatzi izan dira, herritar asko eta asko izan dira lehiaketan parte hartu izan dabena, orri zuriaren aurrean jarri, irudime-



nari hegoak emon eta ipuin bennetan zoragarriak idatzi izan dabezanak.

Edozein beharrek behar dau bere ordaina, horixe dino gizalegeak. Holan ba, partehartzaileek egiten dabena behar eder eta handi hori aitortzeko sariak banatu izan dira beti, VII. edizinokoak adibidez,

Gamiz-Fikan banatu ziran, gabonilaren 17an.



Ipuinen kalitateak ediziotik edizidora gora egiten dauala kontuan hartuta, VII. edizinoa sari bikoitzagaz etorri jaku oraingoan; izan be, ipuin sarituekaz liburuxka bat atera da. Gure ustez sari polita bai egileentzat bai gu guztiontzat, guztiok gozatu ahal izango dogu-eta geure herrietako "idazleen" lan ederrakaz.

ATHLETIC ZALEEN EGUNA

Apirilaren 9an ospatuko da aurten Athletic zaleen eguna. Talde zuri-gorriak Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo daukozan hamaitxoko eta hamaikatxoko jarraitzaile eta zaletuak, aurten be, Gamiz-Fikan batuko dira. Hemen dozue egun horretako egitaraua:

10:30etan Peñen Alkarteak antolatutako Futbito txapelketaren finala.
11:00etan Txozna zabalduko da.

Poteoa eta:

- Txistulariak (Sestaoko Gaztetuxua taldea).
- Bonboak eta danborrak Terueletik eta su artifizial zuri-gorrien gaztelua.
- Zantantzarrak.
- Bolanderak.
- Danborrak Hellín herritik (Albacete).
- Sama Siku fanfarrea.
- Uso mezulariak askatu.
- Euskal dantzak.
- Ohorezko Aurrezkua: Aracelik ordezkatzan dauzan Peñei omenaldia.
- Herri bazkaria.



ARRIETA

ETORKIZUNA JASOTZEKO/BATZEKO DANON ARTEAN EREITEN

Arrieta jakitun da ingurumena jagoteko ekintzak eta neurriak bideratu eta bultzatu behar dirala, garapen jasangarri bat lortzeko ezinbestekoa dala gure esku dagoen guztia egitea. Hori guztiori kontutan izanda, Arrietako Udalak beste udalerrri eta instituzino batzuekatz batera, Udalsarea 21eko kide izanda, hainbat ekintza koordinatzeko asmoa dauka 2005ean.

Tokiko Agenda 21 programaren bidez, IRAUNKORTASUNA / JASANGARRITASUNA zabaldu gura da, herritar guztiak sentsibilizatu, eta honela, herriaren garapen jasangarriaren alde guztion artean behar egin.

Holan ba, martiaren 15ean, Arrietako udaletxean, Foro edo Batzarra egin zan. Foro hori pausu garrantzitsua eta ezinbestekoa izan da arrietarrontzat, danon aportazioak eta guztion arteko hartu emonagaz, sortu daitekeazan beharriak gaurkotzeko balio izango dau-eta.




DATOZEN HILEETARAKO EKINTZAK ARRIETAN

Euskara Biziberritzeko Planagaz segiduteko, Arrietako Udalak onartu dauz daborduko 2005ean egin beharreko ekintzak. Erdu Press honetan ekintza horreetako batzuen aurrerapena egin dogu:



- Apirilaren 15ean, arrastiko 19:00retan, udaletxean, BIDEO EMONALDIA eta BERBALDIA eukiko dogu, horretarako surflari bat etorriko jaku eta kirol horren gaineko kontu asko ekarriko deusku.

- Hasita dago aurtengo irakurketa lehiaketa, amaiera maiatzaren 6an emongo jako eta egun horretan, lehiaketan parte hartu dabon guztiei SARIAK emon eta gero "Bihar" taldearen "Adarbakar urdina" TXOTXONGILO IKUSKIZUNAgaz gozatzeko aukerea eukiko dogu ume, gaztetxo eta baita helduok be.



Saramus kultur alkarteak be prestatuta dauko aurtengo ikasturterako egitaraua. Hona hemen antolatuta daukezan ekimenetako batzuk:

- martiaren 11tik ekainararte ANTZERKI TAILE-
RRA UMEENTZAT, barikuetan, arrastiko 18:30etatik 19:30etara, lehengo eskoletan.
- apirilaren 8an hasita barikuero
JOTA IKASTAROA herriko plazan.
- apirilaren 17an TXANGOIA Getariara.



FRUIZ

LURRALDAI TXOKOA

Fruiztarrek urte barria txoko barriagaz hasi dabe. Abenduan txokoaren inagurazinoa egin eben eta egun horretan bazkideen arteko bazkaria egin zan. Lurraldai txokoa Aldai auzoan dago, etxe barriak egin diran gunean. Dagoeneko 35 bazkide inguru daukoz eta oraindino be, herritarren batek bazkide izan gura badau, izena emoteko aukerea dauko, horretarako jartzen dan baldintza bakarra Fruizen errolatuta egotea da.

Txokoa zabaldu danetik mugimendutxua igarten da herrian. Eta horrek Fruiz moduko udalerrri txiki baterako asko esan gura dau. Bariku-zapatu-domeketan lagun kuadrilak, gura-



soak umeakaz, bikoteak, jatekoa eroan, jateko hori prestatu eta ederto batean ibiltzen dira, alkarregaz egon eta ondo pasatzeko aukerea emoten deusien lekutxo hori daukie-eta.

Denpora ona hasten jakunean be, seguru gagoz batek baino gehiagok etekin polita aterako deusola txokoari; izan be, txokoak atzekaldean, eguraldi onagaz gozatzeko beren beregiko terrazatxoa dauko.

Dana dala, baten batek txokoaren gainean gehiago jakin gura badau udaletxera deitu leike edota txokoaren sarreran dagoan buzoian itxi leikez daukoan galderak, komentarioak....

ITURRIETATIK IBILALDIA

Aurreko Erdu Press batean azaldu genduan ba, Fruizen Kirkiñitu mendizale taldea eratu zala eta, daborduko, baeukozala urteera batzuk pentsatuta. Urteera horreetariko bat "Iturrietatik ibilaldia" izan zan eta zezeilaren 27an (domeka) egin eben.

Mendizale taldeak aukeratutako ibilaldi horrek polita eta askoren gustukua izan behar izan dau, derrigor; izan be, egun horretan hogeitaka lagun batu ziran herriko plazan, danak be iturririk iturrira joateko prest. Ez dakigu, ostera, iturri guztietako ura probatu, dastatu eben ala zer, baina bai badakigu, ibildaldi ostean hamaiketako galanta egin ebela txokoan.

Hemen doatsue egun horretan fruiztarrek egin eben ibilaldi hori nondik norakoa izan zan, hemendik urrun joan barik osteratxo bat egin gura dozuen guztiontzat.



MEÑAKA

MUNDU OSOAN OSPATZEN DAN JAIA DA, BAINA... ZERGATIK OSPATZEN DOGUZ ARATOSTEAK?

Martiaren 21ean udabarria ailegatzen da eta natura hankaz gora jarten dau: eguna luzatzen da, eguraldia hobetu, landak loretu... Eta amalurrak udabarriaren etorrera ospatzen badau, zelan ez deutso izakiak ondoetorria emongo udabarriari? Hori da, hain zuzen be, aratosteen esangura: naturaren berpiztearen ospakizuna.

Halan izan arren, Elizaren indarra bitarteko, aratosteak garizuma aurretik ospatzen dira, zezeilan, hau da, ondino neguaroa, nahiz eta, berez, udabarriko jaia izan. Baina aratosteak baino lehen, badago beste ohitura bat: basaratostea edo kanporamartxoa.

BASARATOSTEA edo kanporamartxoa Hautserre eguna beti eguaztena izaten da. Aratosteetako egunik handiena, aurreko eguna da: Martitzen Inaute; eta aurreko domeka bebai, Domeka Inaute. Domeka Inaute zortzi lehenago (hau da, Hautserre eguna baino hamar egun lehenago) basaratoste eguna da.

Egun honetan, umeek, gazteek, zein nagusiek osterata txiki bat egiten dabe inguruko baso edo mendietara. Leku bat aukeratu, abarrak eta egurra batu eta su ederra egin. Gero bakotxak makilatxo edo zurezko burduntzi bategaz txorizoa eta urdaia erre eta jan. Ekintza honeri txitxiburruntzia esaten jako, eta egunari basaratostea (< basora + osterata) edo kanporamartxoa (< kanpora + martxoa)

ARATOSTEAK, inauteriak edo karnabalak Esan bezala, aratosteak Pazko eguna eta

Hautserre egunaren arabera jarten dira. Egunik handiena Hautserre aurreko eguna izaten da: martitzen aratoste; baina, gaur egun, ez da leku danatan egun berean ospatzen: Meñakan, adibidez, zezeilaren 12an izan ziran.

Hiru izen erabiltzen dira egun honek adierazteko: aratosteak – inauteriak – karnabalak.

Aratoste berba, batez be, Bizkaian erabilten da. "(H)aragi uzte"-rekin lotuta dagoala esan leiteke. Eliza katolikoaren aginduen arabera, garizuman, barikuetan batez be, barau edo bigilia edo haragi uztea egin behar zan (urteko beste barikuetan be egin behar izaten zan, baina bulda erosiz gero jan eitekean haragia). Bestalde, baraua, "bariku" berban bertan be daukagu: abari bako > bariaku > bariku.

Inauteri (iñauteri, ihauteri, iñoteri) hitzaren jatorria ez dago argi. IÑAU + TE +ERI.

Atzizkiak ulergarriak dira, baina "iñau"? batzuentzat "iñakin (burla)" hitzagaz dauka zerikusia, beste batzuentzat "iñoso (burlon)" edo "iñul (imbecil)" hitzakaz.

Karnabalak gaztelaniatik, eta lehenago latinetik hartutako berba da: batzuentzat "carne vale", hau da, "agur haragia", beste batzuentzat "carrus navalis", hau da, aratosteak ospatzeko errobera ganean ipinten eben itsasontzia, barru bete jendez euren jantzi berezi, janari, edari eta abarrakaz herritik zehar paseatzeko.

HAZI ETA HEZI EUSKERAZ

Gure herrietako hainbat ume, 2 eta 3 urteko hainbat ume, aurten lehenengoz hasiko jakuz eskolara, ez, oraindino ez, baina bai datorren irailean, eta horretarako zezeilan egin behar izan dabe aurre-matrikula edo izen emotea ikastetxeetan.

Gure udalek, Bizkaiko beste hainbat udalen moduan, "Hazi eta hezi euskeraz" izeneko kanpainan hartu dabe parte eta 2-3 urteko umeen aita-amei informazioa bialdu deutsie etxeetara.

Hazi eta hezi kanpainagaz egin gura izan dana zera izan da:

-Eskolara lehenengoz hasiko diran umeen aita-amei irakaskuntza sisteman gaur egun dagozan ereduen barri emon.

-D eredia bultzatu, D eredia dalako euskeraz zein gaztelaniaz, hizkuntza ofizial bieran, behar dan moduan berba egin eta idatzi ahal izateko dogun erdurik egokiena gaur egun.

Aukeratzen dan ereduak zerikusi zuzena dauko gure seme-alabek gero etorkizunean euskeraz eta erdaraz izango daben gaitasunarekin, eta gurasoak horretaz jakitun izan badira, horixe erakusten deuskue 2004/2005 ikasturteko datuek: Bizkaian B eta D ereduak dira aukeratuenak eta Mungiako ikastetxeetan D eredia da beste guztien gainetik dagoena, eta alde handiagaz gainera.

BIZKAIA	Guztira	A eredia	B eredia	D eredia	X eredia
HAUR HEZKUNTZA	37.928	3.376	11.594	22.557	401
LEHEN HEZKUNTZA	50.809	8.868	14.899	26.245	797

ITURRIA: Eusko jaurlaritzako Hezkuntza saila (behin behineko datuak).

MUNGIA	Guztira	A eredia	B eredia	D eredia
HAUR HEZKUNTZA	764	--	15	749
LEHEN HEZKUNTZA	986	21	52	913


ITURRIA: Mungiako Udala (behin behineko datuak).

Datu moduan, hemen doatsue gure udalerritan erroldatuta zenbat 2-3 urteko ume dagozan:
Arrietan: 8 • Fruizen: 9 • Gamiz-Fikan: 16 • Meñakan: 12



LUIS BARAIAZARRA TXERTUDI

Euskal idazle eta ikertzailea



Isidro Baraiazarra Abaroa eta Benigna Txertudi Monasterio baserrira ezkondu ziran 1927ko otsailaren 18an. Denporaren poderioz, hamar seme-alaba euki ebezan, euretari-ko bederatzigarrena Luis dala.

Luis 1940ko martxoaren 17an jaio zan. Lehenengo ikasketak Meñakako eskolan egin ebazan, 12 urte betetako egoala, Zornotzako Karmeldarren ikastetxean sartu arte. Latina eta Giza Zientziak ikasi ebazan. 1957-58 ikasturtean nobiziatua egin eta profesia osteko urtea Markinan egin ondoren, Gasteizen burutu ebazan Filosofiako hiru urteak. Begoñako Karmelon lau urtetan Teologia egin ondoren, 1966an abadetu egin zan. Urte horretan Markinara joan zan, eta harrezkero han bizi da.

Eleiz ikasketak egin ondoren, maisutza karre-
ra eta Euskal Filologia be burutu ebazan.

Luisek, hogeitau urtetan irakaskuntzan egon ondoren, 1988an ixtea erabaki eban, "Bostak bat" lantaldean hiztegegintzara oso-osorik dedikauteko.

1991tik Euskaltzaindiako Hiztegi Batuko batzordekidea da eta 1996tik Gramatika Batzordeko kidea bebai.

Bizkaiko Bertsozaleen Elkartean be urte asko-

an ibilia da, idazkari lanak egiten.

Gaur egun argitaratzen ez dan Kilikili aldizkarian lan handia egin dau. "Kiliberry" liburuxkak urtetan dabenean, euskara aldetik orrazketa berak egiten dau, baita "Karmel" aldizkariko artikuluak be.

- Nork edo zerk eraginda hartu zenuan karmeldar eta abade bizimodu-
dua?

- Neuk be horixe galdetzen deusat neure buruari eta ez daukat erantzun argirik. Umezaroan nonok eskutik oratuta ekarri banindu bezala ikusten dot bokazioa. Familian eta gurasoen bidez jasotako herentzia izan

daiteke. Gehienak herrian gelditu ziran, eta nire moduan bide honetan hasitako beste asko barriro bueltau ziran. Nik, ume eta gaztetxo nintzala, jolas, ikasketa eta erlijio giroan, aurrera egin neban gorabehera handi barik, nonok eramana bezala. Nire bidea haxe dalakoan nago eta, bizimodu danatan izaten diran argi-ilun artean be, pozik, ilusinoz eta esker onez helduten deusat egunero bizimodu honeri.

- Eta zerk edo nork eraginda euskaltzale?

- Hau be etxetik dakargu. "Umearen zentzuna, etxean entzuna" da esatera. Gurean etsenplu onaren oihartzuna entzun ei gendun, egintzen eta sentimenduen mezu indartsua. Kontua da, barruan ondo itsatsia geratu jakun euskaltzaletasuna eta barruak horixe eskatzen eskula. Geroago, Frankoren diktadura hurretik sumau izanak eta nozonoz komenturen batean euskeraz berba egitea debekau izanak, lehen euskaltzale ginanok gehiago sendotu ginduzan gure horreetan eta, gainera, baita alkartu be euskal kultura lantzeko, euskeraz idazteko eta gure herriari kultura bidetik ahal gendun ekarpena egiteko...

Luis Baraiazarrak bere bizitzan zehar euskera-ri buruzko ikerketa lan asko egin dauz, beraiek idatzi dauzan liburuetan eta parte hartu dauan hiztegietan islatzen dirala.

Garrantzi handiko itzulpenak be egin dauz, adibidez: biografiak, II Kontzilio Ekumenikoari buruzko materiala.... eta artikulu asko eta asko idatzi dauz.

Hona hemen argitaratutako beharren laburtutako aipamen bat:

- Euskal Herriaren Historia (I)
- Euskal Herriaren Historia (II): 1980an ikasletoletarako asmoz bi liburukietan, "Gero"-Mensajerok "kimu" saileak argitaratuak
- Hitzezko txirlorak. 1985ean Donostian, "Elkar" argitaletxeak argitaratua. Olerki liburua da, 1981an hasita Euskal Herriko sariketetan lehenengo edo bigarren saria lortutako olerkiz osatua, Eusko Jaurlaritzak antolatzen dauan "Lizardi Saria" garrantzitsuena izanik.
- Adorez Hiztegiak:
 - Euskararako Hiztegia "Adorez 2" 1986an

- Sinonimoen hiztegia, antinimoduna "Adorez 3" 1988
- Euskararako Hiztegia, oinarritzkoa "Adorez 4" 1990
- Eskola Hiztegia, irudiduna "Adorez 5" 1991
- Europa Hiztegia "Adorez 6" 1993 (1995 CD-ROM)
- Diccionario 3000 Hiztegia "Adorez 7" 1996 (+CD-ROM)
- Sinonimoen Hiztegia, antonimoduna "Adorez 7" 1996 (+CD-ROM)
- Diccionario escolar 3000 Euskara Hiztegia "Adorez 9" 2001 (+CD-ROM)
- Diccionario 3000 Hiztegia (eguneratua eta gaurkotua) "Adorez 7" 2002 (+CD-ROM)
- "Bidegileak" saileko liburuxkak
- Aldizkarietan argitalpenak: Zeruko Argia 1970etik, Karmel 1954tik, Olerti poesia aldizkaria, Jakin, Garaia, Bertsolari aldizkaria...

OHARRA: Hurrengo atalean, Luisen haurtzaroko oroimenak, Meñakako garai hartako bizi-moduak... argitaratuko doguz.



MARTXOAREN 8a

Emakumearen Nazioarteko Eguna

1975ean, Nazino Batuek martxoaren 8a Emakumearen Nazio Arteko Egun izendatu eban, eta ordutik aurrera mundu osoan ospatzen da eskubide eta aukera berdintasunaren aldeko egun hori. Baina emakumeen borroka lehenagotikoa da.

XVI. mendean Maria Lejarsek "Emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna" liburua idatzi eban.

Frantziako iraultzan (1789) feminismoaren lehen lorpen historikoa eskuratu zan, emakumeak Parisen zehar "askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna" zarataka ibili ziranean.

1791n, Olimpia de Gougesek Frantziako Asanblada Nazionalean "Emakumearen eta Hiritartasunaren Eskubideen Adierazpena" aurkeztu eban, emakumeen duintasuna eta euren eskubideak eta askatasunaren aitortpena eskatuz. Eskaera horregaitik, burua ebagi eutsien eta bere kideak bizitza osorako zoroetxe batera bidali ebezan.

1908an, Manhattaneko artiletzetako emakumezko langile askok lan baldintza penagarriakaitik protestatzeko New Yorkeko lantegi bat okupatu eban. Nagusien erantzuna neurri bakoa izan zan: emakumeak egozan gela erre-tzea agindu eban eta sutean 129 hil ziran.

1910ean Copenhagen (Danimarka) egin zan Emakume Sozialisten Nazioarteko Bigarren Konferentzian, Clara Zetkin (Jantzigintzako Emakumezko Langileen Nazioarteko Sindikatuko kidea) buruzagi alemaniarrak Emakumezko Nazioarteko Eguna ezartea eskatu eban, horregaz munduko emakume danen eskubide politiko, zibil eta ekonomikoak exigituteko.

Ikusten dogun lez, emakumeen borroka oso

antxinekoa da, baina, hala ere, emakumeen eskubideak aipatzen dauan lehengo tresna juridikoa orain dala gitxikoa da.

1952an, Emakumeen Eskubide Politikoaren Konbentzioan, Nazio Batuen Erakundeak (NBE/ONU) emakumeek, gizonek bezala, hauteskunde danatan bozkatzeko eta kargu publikoak hartzeko eskubidea daukiela onartu eban. Baina horregaz ez ziran arazo danak konpondu.

XIX. mendeko emakumeen borroken helburua emakumeak diskriminatzen ebezan legeak aldatzea bazan be, XX-XXI. mendeetako borrokak harago doaz eta ez dabe legeak bakarrik aldatu gura, baizik eta gizon eta emakumei ezarritako ohiturak bebai.

Oraindik oso normala da guraso biek etxetik kanpo behar egitea, baina etxeko lan eta arduradan amak baino ez hartzea. Askotan entzuten dogu beharleku batzutan, emakumeek eta gizonek behar bardina eginda be, gizonei gehiago ordaintzen deutseela. Edo autoan doazela, gizonen esaldi famatu hori: andrazkoa izan behar zan!

Gauza danak horeekaitik hain zuzen be, emakumeok borrokan jarraitu behar dogu: Gure alabentzat emakumezko eta gizonezkoen arteko hartu-emonak berdintasunezkoak diran gizartea lortu behar dogu.



EDURRA EGITEN DAUANEAN ZER DA GEHIEN GUSTETAN JATZUNA?



JON LARRABE COSTILLA, (GAMIZ-FIKA)

Mendi gailurrera joan eta bertan edurragaz jolastu, gehienetan anaiagaz eta lagunekaz joaten naz, eta edur panpinak egiten gozatzen dot.



IGNACIO URÍA GARAIZAR, (ARRIETA)

Edurra egin dauan egunetan trineoan montatu eta etxe ingurutik ibili naz, baita alboan dagoan menditik be. Edurrezko bolak egin dodaz, bat aitari poltsikoan sartu neuntsan eta beste bategaz eperdian emon neuntson. Txakurrari be edur bolak jaurti neuntsozan.

Egun batean edurra zala-eta eskolara joan barik gelditu nintzan eta egun horretan aitak eta biok edurrezko gaztelu bat egin genduan.



JON OLABARRIAGA HORMAECHE, (FRUIZ)

Edurrezko panpina egitea eta jolastea, bolak botatzea nire lagunei eta amari.



AINHOA GARMENDIA (MEÑAKA)

Elurretan jolastia oso dibertigarria da baina hotz asko egiten dauelez, nik, apur bat jolastu dot eta argazki batzuk atara dodaz. Ea berriro eitze dauen!


DENPORA-PASAK

HIEROGLIFIKOA



Zenbat balio dau?

MARRAZKI ZENBAKIDUNA



Lum@tx

ESAERA ZAHARRAK

- Ama Birjiña martiko, negua joan eta uda betiko.
 -Negua ez bada negu, uda be huts.
 -Udabarria, odol barria.
 (Gotzon Garate, Esaera zaharrak)

TXISTEAK

Zine zuzendariak aktoreari basoko eszena zelan egin azaldu deutso:

- Zuk txistu bizian egin behar dozu lasterka. Atzetik tigrea joango jatzu, baina ez zaitu harrapatu behar. Ulertu dozu?
 - Bai, nik bai, baina tigreak berak ulertu dau?

Mikelek eskolako notak emon deutsoz aitari. Aita sutan jarri da.

- Matematika -0, Fisika -0, Natur Zientziak -0... Zigor gogorra merezi dau honek!
 - Bai, bai horixe —erantzun deutso semeak— baina ez dakit irakaslea non bizi dan!

(Txistek www.euskaraz.net web orritik atera eta moldatu dira.)

**ZENBAKI HONETAN
PARTE HARTU DABE:**

**ZURIÑE GOTI
BIOSNE TORBIFKO
MAITE TORREALDAI
ELIXABETE URIARTE**

KUKUA ETA TXEPETXA

Txindor-habia, ederto, polito-polito eginda habia, edo txindorra, ez txepetxarena izan behar ze, dana zarratuta eta halan zulo txoa bakarrik ganean eta, ño, sartu dot eskua eta, arrautza barruan itzela barruan! zer dago hamen ba? Kukuaren arrautza barruan, beno egunean-egunean joaten nintzan, eta txepetx-arrautzak be egon ziran, lehenengo txepetx-arrautzak egon ziran, txepetx-arrautzak desagertu egin ziran, hareek, berak kukuak edan ebazan ziur alperra zan eta, haiek edan eta berak arrautza ipini, ba txepetxak zaletasun guztiagaz, segitu egiten eutsen ateratzen aurrera, eta gero atera ebanean, sartu be ez da egiten kukua, beti gose, joan eta ahoa, beti zabalik, eroan eta, apropos ogi zatia be bertan dago-elakoan eta, emon eta iruntsi, jan egiten ebazan, ja dezente hazi zan, eta esan neban, etxera hartu behar dogu kukua, etxera ekarri eta hemen solte itxi, katuagaz badaezpadan kontu euki, emon ogi zatiak behearen ganean eta, plasta-plasta jaten ebazan, eta lagun eginda, lagun eginda solte eta barrura eortzen zan, b gero azkenean ba katuak, arriksutsuak eta, hareek eraso eutsien, osterantzean, kukua itzel!

(Arrieta barbarik berba, Iñaki Gaminde)



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko
Zuzendaritza Nagusia